

GETARIA

INAUTERIAK 2018

KARTEL LEHIAKETA

LEHIAKETA HONEK AURTENGO INAUTERIEN AURKEZPENA EGITEKO AUKERA ESKAINIKO DIGU.

ANIMA ZAITEZTE PARTE HARTZERA!

OINARRIAK

1. GAIA: Getaria eta inauteriak.

DERRIGORREZKO TESTUA, "GETARIAKO INAUTERIAK 2017" ETA (LEMA BAT)

2. Getariarrei zuzenduta dago.

3. Adin guztietako herritarrek har dezakete parte.

4. Edozein eratako lanak onartuko dira.

***16 urtera artekoen lanek eskuz eginak izan beharko dute.

5. Kartelak **A3 neurrikoa** izan behar du.

6. Partehartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

7. Egilearen izena eta datuak gutun-azal batean sartu behar dira. **KARTELAK EZ DIRA IZENPETUKO.**

8. Lanak aurkezteko azken eguna eta ordua: **URTARRILAK 29, 19:00.**

9. Epez kanpo ez da lanik onartuko.

10. Lanak, udaletxean edo liburutegian aurkeztuko dira.

11. Epaimahaia, Kultura Batzordeak, herriko artistek eta herri eskolako irakasleek osatuko dute, besteak beste. **Erabakia lanak entregatzen diren astean bertan hartuko da.**

12. Saritutako kartelek Getariako Inauteriak 2018ko jai egitaraua iragarriko dute. Kartel irabazleak Udalaren esku geratuko dira, eta aurkeztutako lan guztien argitarapen eskubideak izango ditu.

13. MAILAK ETA SARIAK:

- **2-5 urte bitartekoentzat: OPARIA**

- **1. mailatik 3. mailara: OPARIA**

- **4. mailatik 6. mailara: OPARIA**

- **12-15 urteko gazteak: 60 €**

- **16 urtetik gorakoentzat ... helduak: 150 €**

14. Aurkeztutako kartelekin erakusketa egingo da Udaletxeko sarreran (otsailaren 5etik 12ra), eta irabazi ez duten kartelak erakusketa itxi eta hurrengo hamabost egunetan eskuratu ahal izango dituzte egileek.

15. **LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEAK OINARRI EDO BALDINTZA HAUEK OSORIK ONARTZEN DIRELA ESAN NAHI DU.**

INAUTERIAK 2018

KARTEL

LEHIAKETA



Getariako Udala

www.getaria.eus



GETARIA